

HAMAR URTE LUZE KARTZELAN EMAN ONDOREN, PELLO KUESTA BERRIRO GURE ARTEAN

- Noiztik zaitugu gure artean, noiz kaleratu zinen?

Urtarrilaren 17an utzi ninduten libre, egia esan ez nuen espero, beti zain eta zain eta azkenik egun horretan libre.


- Egun hori ez zaizu erraz ahaztuko ezta?



Ez, ia lagunak agurtzeko denborarik gabe kaleratu ninduten, eta kaleratzen zaituzten eguna ez da erraz ahaztuzeko modukoa.

- Ezertaz mintzatzen hasi aurretik, eta kontutan izanik kartzelan 10 urte luze pasa dituzula, hau da 10 urte askatasunik gabe eta Lezotik kanpo, pentsa ezazu gaztetxoek ez zaituztela kaleko argazkiak medio besterik ezagutzen, eta dagoeneko lezotar heldu askok erdi ahantzirik edukiko ditela zure alaitasuna eta irriparrea; bai asko izango dira Pepita eta Joxe Ramonen seme bat kartzelan egotea bihotzez sentitzen zutenak; baina tira, kontaguzu pixka bat noiz, non jaio zinen eta abar...

Gaintzurizketa bideratzean zegoen BURDINTENE baserrian jaio nintzen, gaur egun Errasti haroztegia dagoen horretan lehen MARRUKENE baserria zegoen eta hor bertan frente frentean BURDINTENE, beraz Pisbetik bertan, inguruotan.



-Hori duela zenbat urte?

Duela 38 urte, beraz dagoeneko nahiko heldua naiz.

- Eta etxean zenbat zineten?

Baserrian bizi ginen gurasoak eta amona, eta 8 anai-arreba, 6 mutil eta 2 neska, pentsa dezakezun bezala ez ginen bakardadean asperetzen, erreza genuen gure artean jolastea.

- Zure lehen letrak non ikasi zenituen?

Lezoko ikastolan, Manoli Larrea zen andereñoa, dena

den berarekin nahiko denbora gutxi eman nuen, laupabost urterekin Errenteriako fraileetara joaten hasi bait nintzen, "corazonistetara"

- Ikastetxe horretan zerbait berriarekin topatu zinen?

Bai, hasiera hasieratik erderaz hitz egin beharrean aurkitu nintzen, eta giroa nahiko arrotza zen niretzat, dena den pixkanaka ba nahi-ta nahi ez, ba ohitu egiten zara, eta ez nuen problema berezirik izan.

- Bat gaztetxoa denean haste omen da zaletasunak eta horrelakoak hartzen, zuk zer egiten zenuen, musika gaurko neska mutikoen antzera, edo kirola edo zer...?

Ez, gauza normalagoak, lagunekin ibili denbora pasa, mendira joan, beti bihurrikeritan, gerezi edo sagarrak lapurtzera ondoko baserrietara, antzeko gauzak normalak ziren urte haietan.

- Ikasketak Tellerin bukatu ondoren, zer egiten duzu lanean hasi edo liburu tartean segi?

Telleritik Koldo Mitxelena institutura pasa nintzen bertan COU egiñaz, ondoren "Kimikas" ikasten jardun nuen.

Ikasketak eta gero zer, ... a vivir la vida edo...?

Ez, lanean hasi nintzen udaltzain gisa Errenteriako udaletxean, horretan eramango nituen ba urte t'erdi edo eta...

- Eta zer, aspertu eta lana utzi zenuen edo?

Ez, utzi ez, atxilotu ninduten eta kartzelara eramán, eta horrela, gaur arte.

- Lanean ari zinen zurea, lanpostu finkoa zen agian etorkizunerako ere ametsak prestatzen hasia zinen, bainan, tira, zenbat urte zenituen atxilotu zintuztenean?

Detenitu nindutenean 27 urte nituen, gurasoen etxean bizi nintzen eta baneraman denbora bat neska batekin irtetzen, banekien nire aurreko anai arreben antzera egun batetan gurasoen etxea utzi beharko nuela, bainan oraindik horretarako pauso seriorik eman gabe nintzen.



- Ordu ezkeroztik 10 urte pasa dira, orain gure artean zaitugu eta hori guztiz pozgarria da, kalean ia 3 hilabete daramazkizunean, Pello nola sentitzen zara kanpoan?

Egia esan hasierako aldaketa oso oso gogorra da, nahiz eta betiko jendea ikusi, nik nere burua nahiko galdua ikusi dut hasieran, zenbait momentuetan burura datozkizu barruko oroitzapenak eta abar. Dena den orain dagoeneko askoz hobeto sentitzen naiz, kaleratu berrian dena zen arraroa niretzat.

- Dena arraro hasieran, nola aurkitu duzu zure herria, nola topatu duzu gure Lezo?

Ez dut uste asko aldatu denik, agian aldaketa nabarmenenak eraikuntza mailakoak izan dira, bainan kaxkoa denak beti bezela jarraitzen duela uste dut. Hori bai, gazterik ez dut alerik ere ezagutzen, eta adinekoetat zer esan, bereziki hirugarren adinekoengan, horien gan, sumatu dut beherakada izugarria eman dutela, egia esan behar badut, oso zahartuak topatu ditut gehienak.

- Eta gure adinekoak nola ikusi dituzu?

Beno, gehienak nahiko "situatuak", nik utzi nituenean, mendira, Lesakara edo edonora joaten ginen, parranda han edo hemen, egun aldiz, gehienak ezkonduak daude, familia ere badaukate, eta beste erresposabilitateak dituzte, dena den pertsona gisa lehen goak dira, ez dira aldatu, nahiz eta orain beste era batera bizitzen diren; agian pixka bat



serioxeago bizi dira, baina normala iruditzen zait, ni mundu berri horren aurrean pixka bat galduta sentitzen naiz.

- Badirudi modan dagoela kuadrilak politikoki kolore bakarretakoak izatea?

Begira, nik horretan suerte handia izan dut, gure kuadrila horretan aberatsa delako, gure kuadrilan bakoitzak bere

ideiak ditu, gure artean eztabaidak ditugu, baina elkarrekin mantentzen gara problema-rik gabe, eta hori oso aberasgarria iruditzen zait.

**- Iraganarena begiratu, lehen esan didazu oso ondo gogoratzen zinela noiz kaleratu zintuzten Martutenetik urtarrilaren 17an arratsaldeko zazpiak alde-
ra; noiz eraman zintuzten gurasoen etxetik?**

Gurasoen etxera ni atxilotzera, 84ko abenduaren 7an etorri ziren Intxaurrondoko guardia zibiletako informazio brigadakoak.

- Noiz izan zen gaueko ordu txikitik edo egun argiz?

Sarritan atxilotetak gauez burutzen badituzte ere, nere kasoan, eguerdi aldean izan zen etxean sartu zirenekoa eta kolpe artean, poltsa eta abar Intxaurrondora eraman nindute-
nekoa.

- Nola ikusi zenituen etxeak momentu hartan?

Etxekoek lur jota geratu ziren, ez nik eta are gutxiago beraiek, ez bait genuen antzeko sorpresa txarrik espero.

- Nolakoak izan ziren detentzio egunak?

Intxaurrondoko guardia zibilak taldeka funtzionatzen zuten, batzuk atearazten ninduten, besteak eseriarazi, beste batzutan galdeketari egin, beste batzutan egurra eman, jipoi-
tu; handik ordu batzutura bakar bakarrik uzten ninduten, eta gero berriro galdeketekin hasten ziren gau eta egun.

Horrela 3 egun, dena den beraiek nahiko garbi zuten gauzak zertan zeuden, eta azke-
nerako pakean utzi ninduten, hala eta guztiz ere paper bat aurkeztu zidaten firma nezan,
paper horretan adierazten zidaten lege antiterroristapean nengoela eta detentzio egunak
hamar izan zitezkeela. Madrilera eraman ninduten eta hitz bakar bat esan ez zidan ofizio-

ko abokatu baten aurrean beraiek prestaturiko deklarazio bat firmarazi zidaten. Han toatu nintzen Ramon, Javi eta Bereziarekin.

- Eta gero?

Gero epailearengana eraman ninduten eta honen aurrean aurreko deklarazio horretako zenbait puntu aldatu nituen, kontutan izan behar da lehen deklarazio hori presiopean sinatzen duzula.

- Epaileak zu espetxeratzeko agindua ematen du, zein dira burura datozkizun ideiak?

Kartzelera iristerakoan pentsatzen dezu zeruan zaudela, horien eskuetatik pasa ondoren kartzela kalea dirudizu.

- Beraz, Intxaurrondotik Madrilera?

Horrela da bai, Javi, Ramon, Berezi eta ni neu elkarrekin eraman gintuzten, Carabantxeleko konunan beste zenbait euskaldun topatu genituen, Elgoibarko 4, Iruñeako 2, denera 10 edo 12 lagun izango ginen.

- Bakardaderik ez?

Ordurako ez, guardia zibilen artean pasatako larridurak eta bakardadea amaituak ziren, eta neretzako oso inportante zen horien hatzaparretatik salbu sentitzea.

- Zenbat denbora ematen duzu Carabantxelen?

Oso gutxi, egun gutxi batzu besterik ez, berehala Alcalá Mécora eraman ninduten, momentu hartan bertan 90 euskal preso izango ginen.

- Zertan pasatzen dituzu orduak Mecon?

Kartzelan sartzen zaituztenean egiten duzun lehenengo gauza zera da, begiratzea besteek zer egiten duten, nola funtzionatzen duten, eta ondoren gutxi gora behera horien martxa bera jarraitzen duzu.

- Hau da, ikasi ezta?



Etxea utzi eta hamar urte zapaltzaileen atzaparretan.

Horixe da, ikasi espetxearen funtzionamendua nolakoa den, ohartzen zara zer egiten duen urteak daramazkien jendeak, eta hauengandik ikasten duzu zer egin kartzelaldia gainditzeko.

- Zertan ematen dituzu egunaren 24 ordu luzeak?

Kartzela bakoitzak bere ezaugarriak dauzka, batzutan uzten dizute aktibitateak egiten, eskulanak, kirola, irakurri, eta abar, baina beste batzutan berriz ezin dira antzeko gauzak aurrera eramanez, espetxe bakoitzak erregimen mota bat du.

Lehendabiziko helburua euskara ondo landu eta EGA atera izan zen.. Gero, enpresariales egiten hasi nintzen, zenbait azterketa egin nituen finantz-kontabilitatea, soziologia, eta besteren bat, baina aurrera egiteko traba galantak jartzen zitkiguten. Sarriko matrikulatua nengoen, baina ikasteko lehen materialak martxo edo apirilean jasotzen genituen eta horrela ezinezkoa zitzaidan azterketak egoki prestatzea.

Ikasketak egiten nituen denbora haietan bihotzekoak eman zidan, eta baztertuta utzi nituen pixka bat. Bihotzekoa zela eta Carabancheleko ospitalera eramanez ninduten, urte horretan ez nuen gauza haundirik egin, baina hurrengoan asignatura pare bat aurkeztu eta gaitu egin nituen; baina asunto horrek ez zuen luzaroan iraun. Teruelgo espetxera eramanez nindutelako.

Teruelgo espetxeko irakasleak esan zidan horrelako ikasketarik ezin zela egin bertan, asko jota egin zitekeena zera zela alfabetatzea eta antzekoak, beraz oinarri-oinarrizko ikasketak. Azterketak egiteko oztupoak besterik ez nituen aurkitzen, eta azkenik nazkanazka eginda ikasketak bazterreratu nituen.

- Esan duzu bihotzekoak eman zizula, ondoren jaso al zenuen sendagileen mimo edo arreta berezirik?

Hau gertatu zitzaidanean kriston suertea izan nuen, nere ondoan zegoen lagun preso Oscar Castejon sendagilea bait zen, honek izugarri lagundu zidan. Espetxetik Manzanareseko ospitalera atera ninduten, gero Carabanchelekora, honek zera esan nahi zuen bai mediku eta baita ere zaintzaileak oso beldurtuta zebiltzate. Azkenik, Gregorio Marañon ospitalean, egin zizkidaten miaketak bihotzekoaren zergatiaren berri jakiteko; bertan gutxi gora behera hilabete terdi inguru pasatu nituen.

- Bada kartzelan hildako euskal presorik, kasuren bat gertutik bizitzea tokatu al zaizu?

Bai, eta ez da ahaztuzeko modukoa, bere buruaz beste egin zuen Mikel Lopetegi justu-justu nire aurrean bizi zen Herrera de la Manchan eta esperientzia oso gogorra izan zen, gogorki markatzen dizun horietakoa. Beste hildako bat ere ezagutzen nuen Urrietako Alberdi "Krankas", esperientzi horiek beti uzten dute arrasto bat zure barnean.


- Kartzelan dagoen presoak, nondik jasotzen ditu indarrak eta animoak kartzelaldia gainditzeko?

Gehienbat familikoengandik eta lagunengandik, hauen bisitak oso inportanteak izaten dira guretzat, baita ere neska lagunarenak; guzti hauek ematen dizkigute behar ditugun

animoak. Hauen lana izaten da gure eta kalearen arteko zubiarena egitea, hauei ezker ez garsentitzen hain isolatuak.

- Gestoretan, enkarteladetan, senideetan, eta festetako txosnetan, beti esan ohi izan da amak osagai klabe bat direla...? Pepita, zure amaren kasua ez da bakarra, baita ere bere ahizparena, Domirena, Rosarena,...

Dudarik ez egin, amen papera asunto hauetan benetan oso inportantea da, izugarrizkoa, amentzat oso gogorra da beraien seme-alaba bat kartzelan egotea; amak beraien parte edo zati bat bezala kontsideratzen gaituzte. Amak aitak baina indartsuagoak dira asunto honetan, hau preso guztien amengandik ikusi eta ikasi dugun zerbait da. Nik uste dut aitak epelago edo motelago jokatzen dutela gai honetan.



- Beraz gizonok motelagoak gara?

Gose grebaren ondorioak handik urtetara nabaritzen dira batez ere.

Bai, nere ustetan behintzat bai, motelagoak edo ez dakit nola esan agian kobardeagoak ere bai.

- Aitak aipatu ditugu, oso oker ez banago, kartzelan zinelarik, Joxe Ramon zure aita hil zen. Non harrapatu zintuen aitaren heriotzak?

Orduan ni Leonen nengoen, Leongo espetxean. Egia esan nik zeozer susmatzen nuen zeren urte asko neraman ikusi gabe, esaten zidaten aita ez zela ausartzen bisitara etortzera, eta horrelako kontuak. Behin anaiak bisita batetan kontatu zidan aita oso gaixorik zegoela, eta esan bezela heriotzaren berri Leonen izan nuen.

- Aitaren heriotza dela eta, baimenik ematen dizute hiletetara agertzeko?

Bueno, Leongo zuzendariak deitu zidan eta esan zidan ea zer egin nahi nuen; nik esan nion nik aita bizirik ikusi nahi izango nuela, eta hilda zegoenez berdin zitzaidala dena. Orduan esan zidan egin zezakeen bakarra zela etxetik gertueneko kartzelara bidaltzea, ea

*“Nik nere
burua nahiko
galdua ikusi
dut hasieran
zenbait
momentutan
burura
datokizu
barruko
orotizapenak”*



hori zer iruditzen zitzaidan. Esan nion baietz, eta arazo familiar hura zela medio, Martuteneraino ekarri ninduten.

- Martutenetik ez zaituzte mugitu ezta?

Ez, hasieran hona ekarri nindutenean eskeintzak egiten hasi zitzaizkidan, ea ez ote nuen kalera atera nahi, baldintza guziak betetzen nituela; erreza zela ni kaleratzea eta antzekoak. Nik esan nien ezetz, bakar bakarrik etorri nintzela etxekoekin bisita berezi batzu edukitzeko. Beraien erantzuna ere azkar asko jaso nuen, utziko zidatela etxekoekin vis a vis baten izaten eta gero.. “que me iría a mi tierra...”, Leonera itzuliko nindutela. Asuntua da ez dakidala zergatik, baina kaleratu arte Martutenen mantendu nautela.

- Aizu Pello, Martutenen beste kartzeletan bezala bizitu zara?

Ez, inolaz ere ez, hemen askoz hobeto, bai ni eta baita ere ondokoak. Presoak pentsatzen bait dugu benetako kartzela, kalekoek, etxekoek sufritzen dutela. Hasieran barrura sartzen zaituztenean kaleko orotizapenak dituzu buruan, baina denbora pasatzearekin kaleaz ahazten zara, eta ia ia kartzelan jaioa bezala sentitzen zara, bertako martxa hartzen duzu, kartzela kontrolatzen duzu eta badakizu barruan nola mugitu. Orduan gehiena kezkatzen zaituena zure familia da, honek nola ibili behar duen astero-astero kilometroak egiten zu ikusi ahal izateko, bidean geratuak baitaude aste osoa zutaz pentsatzen. Horregatik hemen egoteak, etxetik gertu, lasaitasun handia da, eta lasaitasun hori oso mesedegarria da presoarentzat.

Hala ere zure galderaren mamira itzuliz esan behar dut Martutene guretzat beste espe-
txeekin konparatuz kolegio bat bezala dela, jende gehiago sar daiteke, urteetan ikusi gabekoak, errealitatera hurbiltzen hasten zara, nolabait etxean bezala sentitzen zara, hemengo irriak entzun ditzakezu, eta abar.

Martutenen igarotako denbora izan al duzu pasadizu zelebrenen bat?

Bai, behin topo egin nuen Donostiako preso sozial batekin, nerekin ikasi zuen eta bere burua oso lotsatua sentitu zuen, berak bazekien ni espetxean nintzela, baina ez zuen inoiz pentsatu Martutenen elkar topatuko ginanik.

- Duela urte asko borroka latzak eman ziren zenbait presoren izakera politikoa onar zedin, zeorrek aipatu dituzenez preso sozialak, ze nolako harremanak zenituzten hauekin?

Asunto horretan espetxe bakoitza mundu diferente bat da, batzutan isolatu egiten gaituzte eta ez digute usten sozialekin harremanik izaten. Beste batzutan aldiz, gu geu apartatzen gara bizitza hobetarako eramateko asmoz. Eta beste batzutan denok nahasirik gaude inolako arazorik gabe, beraz, espetxe bakoitzean era desberdinean moldatzen gara.

- Urteak kartzelan daramatzen preso batek, pentsatzen al du irtetzerakoan zertan ihardungo duen?

Ez, hasieran barrura sartzerakoan pentatzen duzu ni kaleratzen naizenean honetara edo horretara dedikatuko naiz, hau edo beste egingo dut, baina urteen poderioz amets horiek baztertu egiten dituzu; ez duzu ezta pentsatu ere egiten noiz irtengo zaren kalera. Kaleratzen zarenean haur jaio berri bat bezala sentitzen zara, dena ikasi beharrean zaude, barruko bizimodura ohitua zaude, kaleko gehiena berria da zuretzat eta dena jaso nahi duzu berehala, eta hori ezinezkoa da, berriro hasi behar bait duzu zerotik.

- Presoek barruan ere borrokari ekiten diote, borroka mota desberdinei, geroan ba ote dute ondoriorik?

Bai, gose grebak ondorio latzak ditu berekin, gose grebari ekiten zaio helburu zehatz batekin, zeozer konkretua lortzeko, agian ez oso gustora, baina egiten duzunaz kontziente zara: egiten duzu, eta kitto. Dena den desberdina da neguan egitea ala udan, lehenengo egunak dira txarrenak, gero gorputza ohitu egiten da. Ondorioetaz normalean ez zara berehala ohartzen, handik urteetara konturatzen zara gibelean edo beste nonbait zerbait atipikoa sentitzerakoan.

- Eta txapeoak?

Barruan urteak daramazkin jendeak gose greba hitzak ez ditu ezta entzun nahi ere, nahiago dute txapeoa, kartzelan bi borroka mota bakarrik dira posible, gose greba eta txapeoa.

Berriek normalean inoiz egin gabeak dirnez, gose grebari heltzen diote, esperientzi bezela, probatzeko; baina urte asko daramazkitenak azken aukeratzat dute gose greba. Txapeoan zeldatik atera gabe egoten zara eta hainbat ordutan ateak jotzen dira funtzionariak probokatzeko, hauek zuzendariari eska diezaioten presoen eskaerak onartzea.

Txapeoan mantentzea ere ez da ba erreza izango?

Ez, hala ere hori bakoitzaren izakerarekin lotua doa, batzurenzat zelda batetan 2 ordu pasatzea infernu bat da, beste batzuk aldiz, egunak eta egunak eman dituzte txapatuta;



Hamar urte barruan eta etxera herria zain!

pentsatzen dute egunak eta orduak nola bete. Zenbat lo egin, kirola, gorputza nekatu, erlajazio lasaitzeko, pasiatu atzera eta aurrera, irakurri, ondoko zeldakoekin altu hitz egin, eta abar. Esandakoaren antzekoak izaten dira txapeoak, eguna joan eguna etorri berdin; eta bat nola ez dena egiten da.

- Ia 3 hilabete daramazkizu kalean, zertan hasi behar duzu lanean?

Egia esan, ez dakit, hodei batean bezala nabil, oraindik nire tokia aurkitu gabe, lagunartean nabil hara eta honera, bizitzara egokitzen berriro, lanera... zaila dago asunto ez?

- Zer esan nahi duzu, parranda asko egiten ari zarela?

Bueno, je, je, je, jende askorekin kunplitu behar eta...

Mila esker Pello eskeini dizkiguzun hitzengatik, etxekoen eta lagunen laguntzaz aurkitu ezazula berriro Lezon zure tokia, eta gainean ditugun festa hauetarako baliagarri izan daitezela, aurrez eginiko parrandatxoak. Ea eperik laburrenean Lezoko beste presoekin antzera hitz egiteko aukera dugun, horrela balitz LEZO aldizkariaren azalea poz handiz honakoarekin betetzeko aukera izango bait genuke: PRESO GUZTIAK KALEAN DIRA, PAKEA ETA ASKATASUNA GURE ARTEAN.

IÑAKI ZIPITRIA